



INSPIRE Europar Batasunaren proiektu bat da, eta bere helburua datu espazialen azpiegitura europar bat lortzea da. 2007/2/CE zenbakidun Europar Zuzentaraua da bere lege esparrua, eta zuzentaru horrek derrigorrezko arau orokorrak ezartzen ditu informazio espazial azpiegitura bat Europar Batasunean ezartzeko, estatu kideen azpiegiturretan oinarrituta. Zuzentaru hori Espainiako antolamendu juridikora ekarri da 14/2010 Legearen bidez, uztaillaren bostekoa, Espainiako azpiegiturei eta geografia informazio zerbitzuei buruzkoa (LISIGE).

Zuzentaru horrek berariazko egikaritze arau bateratuak eskatzen ditu datuentzat, metadatuentzat eta zerbitzuentzat. Horrela bermatzen da estatu kideen arteko datu espazialen azpiegiturak erkidegoko eta mugaz haraindiko testuinguru batean bateragarriak eta elkarreragingarriak direla.

Zuzentaruak bateratzea eskatzen dituen datu geografikoen artean, Gipuzkoako Foru Aldundiak datu multzo batzuk sortu ditu, INSPIRE zuzentaruaren oinarrituta (XML *schemas version 4.0*). Datu multzo horiek hauek dira:

- Unitate administratiboak (AU, *Administrative Units*):
<https://inspire.ec.europa.eu/id/document/tg/au>
- Katastroko lurzatiak (CP, *Cadastral Parcels*):
<https://inspire.ec.europa.eu/id/document/tg/cp>
- Posta helbideak (AD, *Addresses*):
<https://inspire.ec.europa.eu/id/document/tg/ad>
- Eraikinak (BU, *Buildings*):
<https://inspire.ec.europa.eu/id/document/tg/bu>
- Izen geografikoak (GN, *Geographical Names*):
<https://inspire.ec.europa.eu/id/document/tg/gn>

INSPIRE zuzentaruak ezartzen du datu horiek eskaini behar direla INSPIRE berak estandar dituen sare zerbitzuen bidez. Horrela, datu horiek beste datu eta zerbitzu batzuekin erabilgarriak izango dira. Horretarako, 976/2009 zenbakidun (CE) Erregelamendu aldatua jarraitu behar da:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CONSLEG:2009R0976:20101228:EN:PDF>

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- **Bistaratze zerbitzuak**, ISO 19128 *Web Map Services* (OGC WMS *Standard 1.3*) bistaratze zerbitzuen inplementatzeko gida teknikoak ezartzen duen arabera:
<https://inspire.ec.europa.eu/documents/technical-guidance-implementation-inspire-view-services-1>
- **Deskarga zerbitzuak**, INSPIREko deskarga zerbitzuen inplementazio gida teknikoan ezartzen den arabera: <https://inspire.ec.europa.eu/documents/technical-guidance-implementation-inspire-download-services>



Deskarga zerbitzuak hauek dira:

- **Aurretik zehaztutako datu multzoen deskarga zerbitzuak**, ATOM (GML 3.2.1) teknologia erabilia.
- **Datu deskarga zuzenen zerbitzuak**, ISO 19142 *Web Feature Service* (OGC WFS *Standard 2.0*) eta ISO 19143 *Filter Encoding Specification* zerbitzuak erabilia ezartzen dira.